Mondragon Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

# HDG

## HUMANITATE DIGITAL GLOBALAK

GRADUA





## NORENTZAT DA?

**Giza Zientzietan eta Humanitateetan interesa duzu?**

- Gai asko dituzu gustuko baina ez dakizu zer egin? Edota ez dituzu beste aukera batzuk galdu nahi?
- Kuriositatea daukazu gauza berriak deskubritu eta egiteko era berriak esperimentatzeko?
- Gurean eta kanpoan zer gertatzen den jakin nahi duzu?
- Gure alternatiba da gradu hauetako edukiak ohiko eran beharrean, era praktikoan, berritzailean eta eraldatzailean jorratzea: Soziologia, Antropologia, Zientzia Politikoak, Nazioarteko Harremanak, Diseinua, Filosofia, Giza Zientziak eta Humanitateak, Humanitateak eta Komunikazioa, Produktuen Diseinua, Diseinu Multimedia eta Digitala, Ikasketa Globalak, Nazioarteko Ikasketak, Turismoa, Ikasketa Kulturalak, Geografia eta Historia, Komunikazio Digitala...
- Bai, arlo hauek guztiak landuko ditugu. Eta gehiago. Baina beti erronka errealetan oinarrituta eta gizarte-eragileekin elkarrizketan.
- Bidaiatzea gustuko baduzu, jendea ezagutzea, teknologia berriekin aritzea, talde-lanean jardutea, digitalizazioa humanizatzea, atzerriko hizkuntzak ikastea eta erabiltzea, bila gaitzazu Bilbon, Humanitate Digital Globalak graduan.

## ZER DA?

**2x1 = Digitala eta Globala**

4.0 industria, Adimen Artifiziala eta Sare Gizartea direla tarteko, **teknologiek** geroz eta presentzia handiagoa dute gure bizitzetan. Hala ere, elementu teknologikoak **giza osagaia** behar du aldamenean, taxuz interpretatzeko fenomeno sozialak, pentsatzeko berauetan teknologia zelan aplika daitekeen pertsonen mesedetan eta aurreikusteko etorkizuneko aldaketak.

Digitalizazioak, gainera, bizkortu egin du globalizazioa: une oro eta abiada bizian aldatzen ari den **mundu interkonektatu** eta **interdependente**an bizi gara. Enpresa eta erakundeak derrigortuta daude beraien sorlekuan ez ezik nazioartean ere jokatzera: ezinbesteko dute nazioarteko kultur, politika, ekonomia eta gizarte-joeren ezagutza, eta beraien lantaldeetan behar dituzte joera horietan eta kulturartekotasunean jantzitako pertsonak.

Gradu honen helburua da ikasleak mundu global eta digital horretarako prestatzea, beraien **autoezagutzatik** abiatuta eta ikasle bakoitzari bere **espezializazio-bide propioa** urratzeko aukera emanez.

> **“To recognize and understand the problems of the world, we need a reform in thinking. It is the fundamental question for education.”**

**Edgar Morin**, *UNESCO, Seven Complex Lessons in Education for the Future.*

> **“Leaders who understand the social and cultural contexts in which our technologies are deployed.”**

**Scott Hartley**, *The Fuzzy and the Techie: Why the Liberal Arts Will Rule the Digital World.*



# ZER EGINGO DUT?

### 1. ZIKLOA (1-2 MAILAK)

**Esangura bilatzen** (oinarri sendoen lanketa praktiko eta integrala)

- Autoezagutza.
- Trebetasun giltzarriak: sormena, ahoz, idatziz eta digitalki komunikatzeko gaitasuna, talde-lana...
- Fenomeno sozialen ulermena.
- Euskaran ardazturiko eleaniztasuna.
- Diziplinartekotasuna.

### 2. ZIKLOA (3-4 MAILAK)

**Esangura eraikitzen** (ibilbide propioaren diseinua eta praktika)

- Ibilbide aukera: Ikasketa Globalak edo Humanitate Digitalak.
- Ingelesa +: ingelesez nagusiki.
- Nazioartean egonaldiak.
- Autogestioa eta ekimen komunitarioa.
- Praktikak erakunde eta enpresetan eta kasu errealetan oinarritutako Gradu Bukaerako Lanak.



## NOLA?

**Ez baduzu betikoa egin nahi, ez estudiatu betiko eran**

- Tal dean.
- Azterketarik ez.
- Jakintza-mota desberdinak.
- Eskuekin pentsatu.
- Malgutasuna ikasterakoan: noiz, non, nola, norekin eta norengandik.
- Inguruarekin elkarrizketan.
- Metodologia aktiboak: kasu errealak, erronka eta bizipenetan oinarrituta, ekintza-ikerketa eta LifePlace Learning.
- Do It Yourself, konpainian.

## ZERGATIK HDG?

1. **Beste modu batez**
   Bizipenak eta erronkak.
2. **Enplegatzaileek gehien estimatzen dituzten trebetasunak**
   Komunikazioa ahoz, idatziz eta digitalki; talde-lana; lidergo inklusiboa; gaitasun kritiko-analitikoa; sormena; erresilientzia... eta gehiago.
3. **Gaur egungo gizartea markatzen duten arloak**
   Globalizazioa eta digitalizazioa.
4. **Zeure burua hobeto ezagutu**
   Banakako eta taldekako tutoretzak, mintegiak, elkarrizketak, bizipenak...
5. **Ibilbide propioa diseinatu**
   Norbere pasioak deskubritu eta berauetan sakondu.
6. **Ikas-eszenatoki berezian murgildu**
   Elkarrizketak irakasle eta ikaskideekin; beste arlo batzuetako beste ikasle asko inguruan; kanpoko adituen bisitak eta enpresa, gizarte-eragile, erakunde eta instituzioetako arduradunenak...
7. ***On/off* campus**
   Ikasgela txiki geratu zaigu, UniberZiutatea nahiago.
8. **Bertoko eta munduko**
   Euskal Herria Munduan. Mundua Euskal Herrian.
9. **Azken joerak**
   Munduan zer ari den gertatzen.
10. **Etorkizuneko lanbideak**
    Datorrenerako prest.

# ZERTAN LAN EGINGO DUT?

**Humanitate Digital Globalak** (HDG) gradua egin duenak Euskal Herriko zein atzerriko masterretan ikasten jarrai dezake, edo bestela lan-merkatura irten, profil hauetako batekin loturiko lanbide batean aritzeko:

## GLOBAL STUDIES

### Aholkulari, aditu, dinamizatzaile, bitartekari enpresa eta erakunde globaletan:

- **Diplomazia arloa** (gobernu edo alderdi politikoen kanpo ordezkaritzak, kontsuletxeak...).
- **Ekonomia arloa** (enpresa globalen diplomazia korporatiboa, arlo komertziala, *import/export*...).
- **Kooperazio arloa** (gobernuz kanpoko erakundeak, kooperazio proiektuak...).
- **Hizkuntza eta kulturaniztasun arloak** (kultur eragiletza, bitartekaritza kulturaniztasun testuinguruetan, euskal etxeak, euskara eta euskal kultura irakurletzak nazioartean...).

## DIGITAL HUMANITIES

### Aditu transformazio digitalean:

- **Herritartasuna, gobernu digitala, parte-hartze prozesuak** (*citizenship, e-democracy*).
- **Neuromarketina, publizitate digitala** (*human e-marketer*).
- **Produktu adimendunen diseinua** (*smart social design*).

## ETA...

- **Gizarte-berrikuntza eta eragin sozialeko arduradun:**
    1. Gizarte-erantzukizuna, jasangarritasuna, eragile sozialekin zubigintza.
    2. Teknologia eta datuen jardun etikoaren zaintza.
- **Hezitzaile eta ikertzaile.**



# NON?

**Bilbo. As Fabrik. Zorrotzaurre**

## ON CAMPUS

- Pasillo
- Kafetegi
- Biblioteka
- Eskailera
- Sarrera
- Bilera-Gela
- Ikasgela
- Komun
- Jantoki

## OFF CAMPUS

- Museo
- Kafetegi
- Kale eta etorbide
- Igogailu
- Zubi
- Enpresa
- Erakunde
- Barku
- Barruti
- Poligono
- Taberna
- Metro
- Parke
- Auzo
- Tranbia
- Biblioteka
- Geltoki
- Jatetxe
- Itsasadar
- Antzoki
- Tren
- Liburu-denda
- Portu
- Zinema eta musika areto
- Bizikleta
- Lorategi
- Eraikin berri eta zahar
- Aireportu
- Udaletxe
- Funikular
- Mendi
- Arte eta kultura galeria
- Jauregi
- Kontsuletxe



## ZER DIOTE ENPLEGATZAILEEK?



### AMAIA ASEGINOLAZA

Mundukide

"Etorkizuneko erronka globalei aurre egiteko beharrari erantzuten dio gradu berri honek".



### FERNANDO QUEREJETA

IDOM

"Humanitate Digital Globalen graduak lan merkatuaren eskaerari erantzuten dio: premia sozialak eta teknologia uztartzen trebatutako pertsonak behar dira".



### LUISTXO FERNANDEZ

CodeSyntax

"Komunikazio digitala egiteko funtsezkoa da erakundeetan. Jardun teknologikoak bat egin behar du oratoria bezalako trebezia klasikoekin".



### OSKAR GOITIA

Mondragon International

"Etorkizunean profil eta trebetasun hauek dauzkaten geroz eta pertsona gehiago beharko dituzte enpresek. Diplomazia Korporatibo globalaren premia areagotuko da".





## INFORMAZIOA

**www.mondragon.edu/hdg**

- **Kreditu kopurua:** 240 ECTS
- **Iraupena:** 4 urte
- **Hizkuntza:** euskara, gaztelania eta ingelesa
- **Modalitatea:** presentziala
- **Prezioa:** 6.360 euro (60 ECTS)
- **Tokia:** Bilbo. As Fabrik. Zorrotzaurre

### KOORDINATZAILEAK


- Monika Madinabeitia (mmadinabeitia@mondragon.edu)
- Aitor Zuberogoitia (azuberogoitia@mondragon.edu)


### INFORMAZIOA


Nagore Eskibel (neskibel@mondragon.edu)
T. 600 097 109


** Unibasq-en baliozkotzearen zain.*



Mondragon Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

HDG
**HUMANITATE DIGITAL GLOBALAK**
GRADUA

**www.mondragon.edu/hdg**

**HUMANITATEAK**

BILBO
**AS FABRIK**
**ZORROTZAURRE**

MONDRAGON
GIZATASUNA LANEAN
Finantzak Industria Banaketa Ezagutza

LABORAL kutxa